

TRUMP: SHOWA ETA KAOSA

Bi urte bete berri dituen Trumpen presidentetzak anabasa du ardatz

Magnateak, 72 urte eta beti gorbata gorria kolkloan,

bi urte bete ditu aste honetan Etxe Zurian, Ameriketako Estatu Batuetako historian izan den *shutdown*-ik (Administrazio federalaren etena) luzeenean.

Legeak haustea eta probokazioa gogoko ditu Trumpek, eta epe honetan antzinako kodeak eta ohiturak astindu ditu, instituzioak hankaz gora jartzeaz gain, AEBek sinatuta zituzten itunak lurperatuz.

Gutxienez kaotikotzat jo daitekeen legealdi baten erdian, gauza bakarra dago argi: telehowen aurkezle, Fox New katearen jarraitzaile amorratu eta komunikabide «gezurtien» kritikariak bereari tinko eusteko asmoa du eta presidentetzak ez du horretan aldarazi.

Gezurrez, irainez eta ortografia akatsez betetako tuit andanak bitariko eraginak ditu estatubatuarrengan. Batzuentzat liluragarriak dira, besteentzat gogaikarriak edota beldurgarriak. Baina batzuek zein besteek gauza bakarra ikusten dute eszenatokian: ia-ia bakarrik dagoen presidentearen irudia, bere inguru guztia hustu duen agintariarena.

«Trump bera da showa eta sarrerak agortuta daude. Ondo pasatzen dut eta hobeto pasatzen jarraituko dut». Esaldiak atzo bertan esandakoa dirudi, baina eraikuntzako magnateak 1990ean “Playboy” aldizkariari eman zion elkarrizketa batekoa da izatez.

Historiaz beteta dagoen Bu-lego Obal izugarriak, Etxe Zuriko paretetan eskegita dauden bere aurrekoen irudiek... ezerk ez du newyorktar hau aldarazi, ezta pentsatu ere.

 **MUNDUA!** AFPtik itzulita (Dabid Lazkanoiturburu)

«Bakarrik nago erabat -ni bai gaixoa, ni- Etxe Zurian». Twitterreko mezuak -ironiaz betea eta Donald Trumpek abenduaren 24an Gabonetako oporrak Floridako Mar-a-Lagon duen luxuzko klubean igarotzeari uko egin zionean idatzitakoak- AEBetako presidente tematiaren isolamendua eta frustrazioa erakusten du.



Bere aurretik West Wing (Mendebaldeko Aldea) okupatu dutenetatik aldenduz, AEBetako 45. presidenteak epaileak iraindu ditu eta gerra preso ohi baten inguruan trufa egin du. Dagoeneko, ia-ia inor ez du harritzen Trumpek.

Ameriketako Estatu Batuen historian lehen presidentea da porno izarrekin, espioi errusiarrerekin eta *fastfood* kateekin batera sarri titularretan azaltzen dena, eta bere kontseilari leiala izan zen Kellyanne Conwayk aldarrikatzen dituen «ekintza al-

ternatiboetan» benetako maisu bilakatu da.

ZINTZOTASUNA EDO AUSARKERIA

Bere jarraitzaileek txalotu egiten dituzte Trumpen presidentetzaren datu ekonomiko onak, hitz egiteko orduan duen «zintzotasuna» (ausarkeria?) goraipatzen dute, kanpainen zehar agindutakoa ahaztu ez izana, Txinari kristorenak eta bi esateko ausardia eta bere «abertzaletasunaren» aldarrikapena, itzulituz gabe. Bere aurkariak, ordea,

presidentea nagi handi bat besterik ez dela diote eta bere Twitterreko kontua irain hutsa dela presidente guztien historian, 1789an George Washingtonekin hasi eta Abraham Lincolnekin, Franklin Rooseveltekin eta John F. Kennedykin jarraitu zuen ibilbide presidentzialean.

Oraingoan, Alderdi Errepublikanoko ordezkariak bere alde daude, noizean behin baten batek egoneza azaldu badu ere; esaterako, Trumpek Helsinkin Errusiako presidente Vladimir Putini egin zion harrera beroarekin, Saudi Arabiak Jamal Khaxoggi kazetaria torturatu, erail eta desagerrarazi ostean izan zuen erreakzioarekin eta arrazakeriaren aurkariak eta neofaxistak Charlottesvilleen aurrez aurre liskarretan hasi zirenean «bi aldetan jende ona» zegoela esan zuenean.

Hala ere, Trumpen agintearen bigarren zatia arriskutsu dator, Moskurekin izan dituen harremanen nondik norakoen kontuagatik (Errusiagate).

«Sekula santan ez dut Errusiaren alde lan egin», ziurtatu behar izan du hedabideen aurrean, AEBetako presidente baten ahotan halakorik inoiz ez zutela entzungo pentsatu zuten kazetarien aurrean.

Amaierara arte jarraituko ote du Trumpek ala Richard Nixonen patu berbera pairatuko du Robert Mueller fiskal bereziak ikerketa bukatzen duenean? Bigarren agintaldirako hautatua izango ote da, bere hiru aurrekoek, Barack Obama, George W. Bush eta Bill Clintonek, lortu zuten eran?

Gaur-gaurkoz, Donald Trumpek bere jarraitzaileen babesa mantentzen du, “Make America Great Again” kasketari temati eutsiz. Gallup Institutuaren aburuz, Miss Univers

lehiaketan jabea izan zen magnatea lehen presidentea da historia osoan bere lehen urteetan %50eko onespenik ere lortu ez duena.

Hori bai, eguneroko prentsaurrekoak pikutara bota ditu Trumpek, eta berea eta bereztzat du megafonoa. Bitartean, ohiko komunikabideei «berri faltsuak» zabaltzen dituztela leporatzen die eta «herriaren etsaitzat» ditu.

«AEBETAKO SARRASKIA

Borroka profesionalaren jarraitzaile sutsua, Trumpek energia sobran du, baita lehia-tzeko gose asegaitza ere.

Kanpaina hasi zuenean irribarre batekin gutxietsi zutenek primarioetan 16 aurkari errepublikanoren eta Hillary Clinton demokrataren azken egunera arte faborittoa zen hautagaiaren gainetik gertatzen ikusi behar izan zuten.

2017ko urtarrilaren 20an, New Yorkeko Queen auzoan jaio zen enpresaria Etze Zurira iritsi zen, bere hitzaldian «AEBetako sarraskiarekin» amaituko zuela aginduz Kapitolioko eskailerak dardarka jarri eta ordu batzuetara.

Apurka-apurka, bere inguruko gehienek alde egin dute, edota bere ondotik bota ditu lausengua erabat maite, eta behar, duen Trumpek.

Egun, bere abokatu ohi Michael Cohen du jomugan. «Mezezi ez duen gizonarekiko izan dudana leialtasun itsua gaitzes-ten dut», adierazi du Stormy Daniels porno aktorearekin ezkutuko tratuak egiten zituen Cohenek, Trumpek aginduta gezurra esan zuela onartu berri duenak. Izan ere, negozioetan nahiz politikan printzipio sinple bezain tinkoari eusten dio presidenteak: «Nirekin edo nire aurka», ñabardurarik gabe.



James Comey-k, Trumpek kargutik bota zuen arte FBIren arduradunak, hau idatzi du bere memorietan, presidenteak bere ingurukoei exijitzen dien leialtasun-kodea bera fiskal lanetan hasi zenean mafiako bu- rueru zutena dela.

HONDORIK GABEKO PINOTXOA

«Pixka bat esajeratzea inoiz ez dator gaizki», zioen Trumpek 1987an argitaratu zen «The Art of the Deal» liburuan. Egun bere merituak goraiatzat ditu, inolako lotsarik gabe. «Zerga kontuetan inork ez daki nik beste» hori errepikatzen du behin eta berriz hainbat gaitan: eraikuntzan, droneetan, AEBen historian, ISIS taldeari buruz edota energia berrizta- garrien auzian.

«The Washington Post»-en *facts-checkers*-ek (errealitatea- ren egiaztatzaileek) kategoriatu berria asmatu behar izan dute, «hondorik gabeko pinotxo», berri faltsu edo okerrak 20 al- diz baino gehiagotan errepika- tzen dituenarentzat.

XXI. mendeko geopolitika mugikor eta konplexuan Trumpek jomugan ditu Justin

Aurreko irudian, Donald Trumpen irudia gertu- gertutik. Lerro hauen gainean, presidentea Air Force One hegazkinetik jaisten.
AFP

Trudeau, Emmanuel Macron, Angela Merkel eta Theresa May, eta, aldi berean, agintari larderiatsuekiko miresmena du, Xi Jinping-engandik hasi eta Kim Jong Un-enganaino, Vladimir Putin ahaztu gabe.

Bitartean, zaborrontzira bota ditu hainbat itun eta kon- promiso, Klimari buruzko Pa- riseko Akordioa, adibidez.

Hala ere, abisu larriena ez dute Trumpen aurkariak egin, orain gutxira arte Pentagono- ko buru izan den Jim Mattis-ek baizik. «Txakur Zorua» gaitzi- zenez ezaguna den jeneralak diplomaziaren legerik oina- rrizkoena ekarri zuen gogora: «Kideak errespetatu egin be- har dituzu».

«AITATXO!»

Etenik gabeko dimisioak eta kargugabetzeak direla medio, benetako bizkarrezurrik ez duen Etze Zurian familia da Trumpi geratzen zaion baka- rra. Eta guztiz bat eginda dago.

Melania Trump bera ere itzuli egin da, hasiera batean senarrarengandik urruntzen ari zela zirudien arren. Jatorriz esloveniarrak den modelo

ohiak bere senarraren erretori- ka bere egin du komunikabi- deen aurrean.

Ivanka bere alaba kutuna Pennsylvaniako hiribideko 1.600. zenbakian bizi da orain- dik eta Donald Trumpek onartu du bere aholkuak kontuan har- tzen dituela. «Deitzen zidan zera esanez: 'Aitatxo, ez duzu ulertzen. Hau egin behar duzu, benetan egin behar duzu!'», azaldu zuen presidenteak ira- gan abenduan Justizia Penala aldatzeko legea sinatu zuene- an. «Orduan esan nion, 'OK, ondo dago», gogoratu zuen, barrezka.

Allan Lichtman, Washing- tongo American Universityn historiako irakaslea, Trump enpresaburuaren garaipena iragarri zuen bakarrenetarikoa da eta, bere ustez, AEBetako instituzioak «kinka larrian» ja- rri ditu «historian aurrekaririk ez duen» presidente honek.

Hala ere, nolabait baikor azaltzen da Lichtman. «Seze- sio-gerra eta Watergatea atze- an uztea lortu genuen»; beraz, «2021ean gauzak aldatuko di- tuen beste presidente bat etor daiteke».